

EBAZPENA / RESOLUCION

Espediente zk./ Expediente nº: 5503/2026

Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen

Prozedura/ Procedimiento: Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak/ Subvenciones por Concurrencia Competitiva

Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente: 2026-2027 Ikasturteko ikasleen dirulaguntzak / Subvenciones alumnado 2026-2027 (Musika eskola) - 2026ko KULTUR JARDUERAK AUZOETAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA / CONVOCATORIA SUBVENCION ACTIVIDADES CULTURALES EN BARRIOS 2026

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Kultur jarduerak auzoetan dirulaguntzen deialdia / Convocatoria de subvenciones actividades culturales en barrios

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan ezartzen denez, diru-laguntzak emateko asmoa duten udal guztiek diru-laguntzen plan estrategiko bat onartu beharko dute (BAO, 23. zk., 2016/02/04).

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en su artículo 8 establece que todos los Ayuntamientos que tengan previsto conceder subvenciones deberán aprobar un plan estratégico de subvenciones (BOB nº 23, 04/02/2016).

Galdakaoko Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2024ko maiatzaren 16ko 2024-1078 Ebazpenaren bidez onartu zen, 2024-2027 aldirako.

El Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Galdakao fue aprobado mediante Resolución 2024-1078 de 16 de mayo de 2024 para el período 2024-2027.

Galdakaoko auzoetan kultura-jarduerak sustatzeko dirulaguntzak emateko Oinarri Arautzaile Bereziek, Udalbatzak onartu ditu 2026ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran, eta behin betiko onartu ziren 2026ko maiatzaren 19ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 92. zenbakian.

Las Bases Reguladoras Específicas para la concesión de subvenciones destinadas a fomentar las actividades culturales en barrios de Galdakao han sido aprobadas por acuerdo del Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de febrero de 2026, siendo aprobadas definitivamente en el "Boletín Oficial de Bizkaia" número 92, de fecha 19 de mayo de 2026.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1289 Data: 03/06/2026

Baliozkotze Kod.: 6ETR47R7MZZFR5L YP76RTZ3XT
Egiazapena: https://galdakao.euzkadi.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 21



Kultura, Kirol eta Gazteria Arloak, 2026ko maiatzaren 20ko dataz, txostena egin du.

Galdakaoko Udalak eta Erakunde Autonomoek dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorraren 20. artikulua xedatzen du norgehiagoka bidezko erregimenean emakidatzeko prozedura administrazioaren kabuz hasten dela Alkateak onetsitako deialdiaren bidez eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Korporazioaren iragarki-oholean argitaratuz.

El Área Cultura, Juventud y Deportes emite informe el 20 de mayo de 2025.

El artículo 20 de la “Ordenanza General Reguladora de la concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Galdakao y sus Organismos Autónomos”, dispone que el procedimiento de concesión en régimen de concurrencia competitiva se inicia de oficio mediante convocatoria aprobada por la Alcaldía y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de edictos de la Corporación.

2026(e)ko ekainaren 3(a)(e)ko PR/2026/1730 ebazpen proposamena ikusita, 2026(e)ko ekainaren 3 (a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/1730 de 3 de junio de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 3 de junio de 2026.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

Lehenengoa.- Galdakaoko auzoetan kultur-jarduerak sustatzeko dirulaguntzen deialdia onartzea, honekin batera doan dokumentuaren arabera.

Bigarrena.- Auzoetako kultur-jarduerak diruz laguntzeko guztizko zenbatekoa 12.500 eurokoa izango da gehienez, eta 23.3411.481.01 aurrekontu-partidari egozten zaio.

Hirugarrena.- Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko Iragarki-oholean eta Dirulaguntzen Estatuko Datu-basean udalaren web-orrian argitaratzea.

Laugarrena.- Dirulaguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko epea hamabost lanegunekoa izango da, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bosgarrena.- Eskabideak Galdakaoko Udalaren Egoitza Elektronikoen bidez aurkeztu beharko

Primero.- Aprobar la Convocatoria de subvenciones destinadas a apoyar las actividades culturales en barrios de Galdakao, de acuerdo al documento que se adjunta.

Segundo.- La cuantía total destinada a subvencionar las actividades culturales en barrios asciende a un máximo de 12.500€ y se imputan a la partida presupuestaria 23.3341.481.01.

Tercero.- Publicar la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, en el Tablón de Edictos electrónico, en la Base de Datos Nacional de Subvenciones y en la web municipal.

Cuarto.- El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de subvenciones, suscritas por el/la beneficiario/a o persona que lo/la represente, será de quince días hábiles a partir del día siguiente a la publicación en el boletín Oficial de Bizkaia.

Quinto.- Las solicitudes deberán presentarse a través de la Sede Electrónica del Ayuntamiento

EBAZPENA RESOLUCION
Data: 03/06/2026
Zenbakia: 2026-1289

Baliozkotze Kod.: 6ETR47R7M2ZFR6L YP76R7Z3XT
Egiazapena: <https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/>
esPublico Gestiona plataforma elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 21



dira, eta argitaratutako prozedura edo izapide espezifikoaren bidez egingo dira.

Kultur jarduerak auzoetan

Seigarrena.- Dirulaguntzen Oinarri Nazionalari bidaltzea, deialdiari buruzko informazioaz gain, emandako emakidari edo emakidei buruzko informazioa, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera.

Zazpigarrena.- Diruz lagundutako jardueren zabalkundeari buruzko betebeharrak kendu gabe, entitate onuradunek jaso dituzten dirulaguntzei publizitatea eman beharko diete, abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernantza onari buruzkoan eta, apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki-erakundeei buruzkoan ezarritako baldintzetan.

de Galdakao y se realizará mediante el procedimiento o trámite específico publicado.

Actividades culturales en barrios

Sexto.- Remitir a la Base Nacional de Subvenciones, además de la información sobre la convocatoria, información sobre la concesión o concesiones recaídas en los términos establecidos en la normativa aplicable.

Séptimo.- Sin perjuicio de las obligaciones respecto a la difusión de las actividades subvencionadas, las entidades beneficiarias deberán dar publicidad de las subvenciones percibidas en los términos y condiciones establecidos en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1289 Data: 03/06/2026

Baliozkotze Kod.: 6ETR47R7M2FR5IYP76R7Z3XT
Egiazapena: <https://galdakao.euzkojak.eus/>
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 21





II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Galdakaoko Udala

Kultura arloko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoek behin betiko onespenera buruzko iragarkia.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 49. zenbakian, 2026ko martxoaren 12koan, argitaratu zen Galdakaoko auzoetan kultura-jarduerak sustatzeko helburua duen dirulaguntza norgehiagoka-araubidean emateko oinarri arautzaile espezifikoek hasierako onarpena. Jendurrean jartzeko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, automatikoki behin betikotzat jotzen dira. Testua osorik argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

Galdakaon, 2026ko maiatzaren 7an.—Alkatea, Iñigo Arriandiaga Hernando

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1289 Data: 03/06/2026





GALDAKAOKO AUZOETAN BAKARRIK GARATZEN DIREN KULTUR PROGRAMEI LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Oinarri hauen xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da honako hau arautzea: Galdakaoko Udalak zuzenean kudeatzen ez dituen eta Galdakaoko auzoetan soilik garatzen diren kultura-programak antolatzen laguntzeko laguntzak norgehiagoka bidez emateko esparru orokorra.

2. Erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak

Oinarri hauek araututako dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte udalerriko edozein auzo-elkartek eta irabazi asmorik gabeko erakunde soziokulturalek, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte: egoitza sozial nagusia Galdakaon izatea, kulturaren esparruan lan egitea, beren estatutuak helburuen artean auzo jakin baten barruan jarduerak antolatzea jasota edukitzea, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatuta egotea, bai eta Elkartearen Udal Erregistroan ere, eta arestian aipatutako kultura-programetako bat antolatu nahi izatea.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira udal honek emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe duten erakundeak edo zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituztenak.

Honako egoera hauek dauden entitateak ezingo dira onuradun izan:

- Dirulaguntzaren erakunde onuradunak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko du egiten dituen dokumentu guztietan, bai eta sortzen edo ordezkatzeko dituen kultura-adierazpen guztietan ere, honako arau hauek betez: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duena; eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penala jaso izana, sexuagatiko, arrazagatiko edo erlijioagatiko bereizkeriagatiko zehapenak barne, edo dirulaguntza jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekuren bat izatea.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren xedea edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituztenak.

Sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik zigor administratibo edo penala jaso dutenak, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera dirulaguntza jasotzeko debekuekin zigortutakoak.

- Erabilera Planaren arabera, hizkuntza-baldintza hauek bete behar dira, jendareko ekitaldi eta ekintza publikoetan, euskararen erabilera ahalik eta gehien bermatzeko:
 - Jarduera orokorrak euskaraz, edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Hori ezinezkoa denean, euskararen gutxieneko erabilera bermatuko da: deialdiak eta programak, izen-emateetan, agurretan eta ekitaldiaren aurkezpenetan (hasiera, atsedena eta amaiera), gaien eta hizlarien aurkezpenetan, eta banatzen den dokumentazio orokorrean.
 - Oro har, haur eta gazteentzako jarduerak euskaraz izango dira, ahoz zein idatziz.
 - Haur eta gazteentzako jardueren musika, oro har, euskaraz izango da, eta jarduerak gainerako adin-taldeei zuzentzen zaizkienean, musikaren erdia, gutxienez, euskaraz izango da.
 - Jarduera zein hizkuntzatan egingo den adieraziko da.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1289 Data: 03/06/2026

Baliozkotze Kod.: 6ETR47R7M2ZFR5I.YP76R7Z3XT
Egiazapena: <https://galdakaoko.euzkadi.eus/esPublico/GestionaPlataformaElektronikokiSinatutakoDokumentua> | 5. orrialdea, guztira 21
ek: BAO-2026a092-(11-2487)





- Jarduera ezagutarazteko edo hari laguntzeko egiten diren euskarriak, ahoz zein idatziz (argitalpenak, idazkiak, iragarkiak, oharra, publizitatea, bozgorailuak...), euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira.
 - Web-jarduera bat bada, dibulgaziozko argitalpena edo aldizkaria bada, jardueraren edukia euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango da.
- e) Ez zaie dirulaguntzarik emango auzotarren gozamen orokorrerako ez diren kultura-jarduerak egiten dituzten urbanizazioei edo auzo-erkidegoei.
- f) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zerrendatutako edozein.

3. Arau-esparrua

Auzoetan jarduera kulturalak egiteko dirulaguntzak konkurrentzia-araubidearen arabera emango dira, eta oinarri espezifiko hauetan arautuko dira. Aurreikusi gabeko gutxiari dagokionez, honako hauetan xedatutakoari jarraituko zaio:

1. Galdakaoko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek Dirulaguntzak Ematea Arautzen duen Ordenantza Orokorra (2005eko irailaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 172 zenbakia), 2007ko azaroaren 28ko osoko bilkuraren erabakiz aldatua (2008ko otsailaren 1eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 23 zenbakia)
2. Galdakaoko Udalaren aurrekontua betearazteko araua.
3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta oinarrizko izaera duten edo Toki Administrazioak osagarri gisa aplikatu behar dituen garapen-arauak, bai eta lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
4. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batgina onartzen duena; eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
5. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko dena.
6. Bere izaeratik aplika daitezkeen beste edozein araudi.

Deialdian jasotako dirulaguntzak kudeatzeko, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraituko zaie, bai eta helburuak betetzeko efikaziari eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientziari ere.

Oinarri hauen interpretaziotik, aplikaziotik edo ondorioetatik sortzen diren zalantzak dirulaguntza ematen duen organoak ebatziko ditu.

4. Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntzak norgehiagoka-araubidearen arabera emango dira.

Urtero, dagokion deialdian adieraziko da deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa eta zer aurrekontu-kredituri egozten zaion.

5. Organo eskuduna eta ebazpena

Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna Kultura arloko teknikariak dira; emakida-proposamena egiteko organo eskuduna gaiaren arabera dagokion Informazio Batzordea izango da, eta emakida emateko organo eskuduna Alkatetza edo hark eskuordetzen duen organoa izango da.

6. Eskabideak eta epeak

6.1. *Epea*: Eskaerak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren urteroko deialdietan adierazitako epean aurkeztuko dira.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1289 Data: 03/06/2026

Baliozkotze Kod.: 6ETR47R7MZZFR5I.YP76R7Z3XT
Egiazapena: https://galdakaoko.euzkadi.eus/esPublico/Gestiona/plataformatik/elektronikoki/sinatutako/dokumentua/16_0rrialdia/guztira/21
ek: BAO-2026a092-(11-2487)





6.2. *Modua*: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarri hauei dagokien diru-laguntzan parte hartzeko eskabideak Galdakaoko Udalaren egoitza elektronikoan aurkeztu beharko dira (<https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/info.0>)

Galdakaoko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratutako prozedura edo izapide espezifikoen bidez egingo da eskaera.

7. Erantsi beharreko dokumentazioa eta egiaztatu beharreko datuak

Erakundeek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte egoitza elektronikoaren bidez:

- Dirulaguntzaren eskabidea, eredu normalizatuaren bidez.
- Garatuko den kultura-programazioaren proiektu zehatza.
- Programa gauzatzeko aurreikusitako gastu eta diru-sarreraren aurrekontu banakatu eta zehatua; beste erakunde publiko edo pribatu batzuei laguntza eskatu edo haiengandik laguntzarik jaso bada, hori zehaztu eta zenbatekoa adierazi beharko da.

Egiaztatu behar diren datuak:

Galdakaoko Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei dagozkien beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, salbu eta berariaz aurka egiten badiote; kasu horretan, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Elkarteen Erregistroko izen-ematea eta karguak egiaztatzea.
- Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.

Gainera, interesdunak Udalaren esku dauden datu pertsonalak (NAN zenbakia, jakin-arazpenetarako helbidea...) deklaritzen dituenean, eskaeraren hartzaile den organoak, bere eskumenak baliatuz, datuen zehaztasuna egiaztatzeko beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahalko ditu.

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Kultura Arloak izapideak egiteko beharrezkoa den beste edozein datu edo dokumentu eskatu ahal izango du, legean edo oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, dagokion eskabidean zehaztuko dena.

Eskabideak ez badira osorik formalizatzen edo eskatutako dokumenturen bat falta bada, erakunde interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

8. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Eskabideak ebazteko eta erakunde eskatzaileei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, deialdia argitaratzen denetik aurrera. Ebazpenaren jakinarazpena administrazio-prozeduraren legerian aurreikusitako moduan egingo da.

Epe hori igaro eta eskaeraren berriazko ebazpenik ez badago, eskaera ukatu egin dela ulertuko da, hargatik eragotzi gabe geroago berriaz ebaztea.

9. Hautatzeko eta baloratzeko irizpideak

Eskatzaile desberdinek programatutako jarduerak gainjartzea saihesteko, auzo bakoitzeko kultura-proiektu bakarrari emango zaio dirulaguntza eta baimena; proiektu hori aukeratzeko jarraian adierazitako balorazio-irizpideak erabiliko dira, eta puntuazio handiena lortzen duen proiektua aukeratu da.

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Programatutako jardueren kopurua: gehienez 10 puntu.
 - < 5 jarduera: 0 puntu





- 5-15 jarduera: 5 puntu
 - > 15 jarduera: 10 puntu
 - Jai-programen kopurua: gehienez 10 puntu.
 - 1 programa: 0 puntu
 - 2-3 programa: 5 puntu
 - 4 programa edo gehiago: 10 puntu
 - Auzoaren kokapena erdigunearekiko (Torrezabal Kultur Etxea): gehienez 10 puntu.
 - < 1 km: 0 puntu
 - 1 - 2,5 km: 5 puntu
 - + 2,5 km: 10 puntu
 - Elkartek aurkeztutako aurrekontuaren %: gehienez 15 puntu. (Aurreko edizioan aurkeztutako sarreraren eta gastuen balantzea baloratuko da)
 - % 10 baino gutxiago: 0 puntu.
 - % 11 - % 25: 5 puntu
 - % 26 - % 40: 10 puntu
 - +% 40: 15 puntu
 - Auzoko biztanle-kopuruaren arabera: gehienez 20 puntu.
 - 250 baino gutxiago: 0 puntu.
 - 251 - 750: 5 puntu
 - 751 - 2000: 10 puntu
 - 2001 - 3.000: 15 puntu
 - 3.000 baino gehiago: 20 puntu
 - Elkaratearen antzinatasunaren arabera: gehienez 10 puntu.
 - 15 urte edo gutxiago: 0 puntu
 - 16 eta 30 urte bitartean: 5 puntu
 - 30 urte baino gehiago: 10 puntu
 - Generoen arteko berdintasuna: gehienez 15 puntu:
 - Elkartea: ordezkari-tza parekidea zuzendaritza-batzordean: (Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da) gehienez 5 puntu.
 - Ordezkari-tza ez da orekatua 0 puntu
 - Ordezkari-tza orekatua da 5 puntu
- * Ordezkari-tza orekatutzat hartuko da 4 pertsona baino gehiagok osatutako erabaki-organismoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkari-tza duenean. Gainerakoetan, orekatua izango da bi sexuak ordezkari-tza daudenean.
- Genero-ikuspegia programan: gehienez 5 puntu
 - Ez da kontuan hartzen: 0 puntu
 - Berdintasunaren aldeko jarduketak zehatzak proposatzen dira: 2 puntu.
 - Programan neurriak jaso dira, emakumeek berdintasuneko parte-hartzea duten jarduketak daude, balioen transmisioan berdintasuna sustatzen da, etab.: 5 puntu.
 - Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa dute: gehienez 5 puntu.
 - Ez dago horrelakorik: 0 puntu
 - Indarkeria matxistako kasuetan jarduteko protokolo bat dago: 2 puntu.





- Indarkeria matxistaren kasuetan jarduteko protokolo bat dago, horren berri ematen da, horrekin batera indarkeria matxistaren aurkako kanpainak egiten dira, eta eragileekin eta zerbitzuekin koordinatuta dago: 5 puntu.
- Euskara: gehienez 15 puntu
 - Elkarteak: euskararen erabilera normalizatzeko plan batean sartuta dago, Galdakaoko Udaleko Euskara arloarekin lankidetzan.
 - Ez: 0 puntu.
 - Bai: 5 puntu.
 - Jarduera orokorra (adin guztientzakoa): euskara hutsean garatutako jarduerak egotea, hau da, euskara jardueraren komunikazio-hizkuntza gisa dutenak (deialdian aurkeztutako programan berariaz adierazita egon beharko dute kontuan hartzeko: EU laburtzapenaren bitartez edo Udalak euskarazko ekintzak adierazteko erabiltzen duen identifikagarriaren bitartez)
 - Ez dago mota horretako jarduerarik: 0 puntu.
 - 1-3 jarduera: 5 puntu.
 - 3 jarduera baino gehiago: 10 puntu.
 - Interes berezia: programan honako egoera hauek jasotzea baloratuko da (gehienez 45 puntu):
 - Kulturartekotasuna: Beste nazionalitate batzuetako kulturekin lotutako jarduerak (2 puntu jarduera bakoitzeko, gehienez 10 puntu).
 - Inklusioa: Gaitasun bereziak dituzten pertsonen parte-hartzeari egokitutako jarduerak (2 puntu jarduera bakoitzeko, gehienez 10 puntu).
 - Ingurumena: ingurumenarekin lotutako jarduerak (2 puntu jarduera bakoitzeko, gehienez 10 puntu).
 - Aurreko urtean udalak diruz lagundutako antzeko programa bat egin izana: 5 puntu.
 - Adin-talde desberdinei (haurrak, nerabeak, gazteak, helduak, adinekoak) zuzendutako proposamenak (2 puntu adin-talde bakoitzeko, gehienez 10 puntu).

Gehieneko puntuazioa 150 puntukoa izango da.

10. Zenbatekoa

Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, ezingo da inoiz diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Dirulaguntzak gauzatu beharreko proiektuaren zenbatekoaren % 100era irits daitezke.

Urtero, dagokion deialdian adieraziko da deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa eta zer aurrekontu-kredituri egozten zaion.

11. Dirulaguntza ordaintzea

Oro har, dirulaguntzak aldeztu aurretik ordainduko dira, eta emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa ordainduko da, inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzari dagozkion jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan agertzen den erakundearen kontu korrontean.

12. Egoera aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak funtsean aldatzen badira, eta oinarri hauetan dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxienezko eskakizunak betetzen badira, baliteke ebazpena ere aldatzea.



**13. Ez-betetzeak eta itzulketak**

Entitate onuradunak itzuli egin beharko ditu dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoak eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte aurreikusitako interesak, dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorraren 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

14. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzaren justifikazioan garatutako jardueren memorian sartzen direnak.

Programetan diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira zerbitzuen edo horniduren kontratazioa justifikatzen dutenak, hala nola animazioa, jolas-jarduera, musika, zerbitzu edo ekipamenduetarako sarrerak, garraioa, jarduera egiteko eskuratutako materiala, dietak (hizlariarentzako, parte-hartzaileentzako edo saritutako pertsonentzako), irakasleen/begiraleen kontratazioa, garaikurrak, jardueren publizitate-gastuak...

Oro har, gastronomia-gastuen bidezko justifikazioak ez du emandako zenbatekoaren bostena gaindituko, proportzionaltasunari eusteko eta dirulaguntzaren xedea ez hutsaltzeko. Kontzeptu horretan gastu handiagoa eskatzen duten salbuespenezko kasuetan, zehatz-mehatz azaldu beharko da gastua zertarako den, programan proposatutako helburuekin zer erlazio duen eta beste kontzeptu batzuen bidez justifikatzeko zailtasuna. Horrela, kasu zehatz bakoitza aztertuko da.

15. Diruz lagundutako jarduera hirugarrenekin azpikontratatea

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren gauzatze partziala soilik azpikontratatu ahalko du hirugarrenekin, eta Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorraren 29. artikuluan aurreikusitako baldintza eta betebeharrak bete beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioaren ehuneko ezin izango da diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50 baino handiagoa izan.

16. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Galdakaoko Udaletik jaso daitezkeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza edo baliabide batzuekin, beste edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatutatik iritsitakoekin.

Hala ere, finantziazio bikoitza saihesteko, bateraezina izango da Galdakaoko Udalak oinarri hauetan jasotako auzoetako kultura-programa programa finantzatzeko emandako beste edozein dirulaguntza (konkurrentziagatik edo izendunagatik).

Nolanahi ere, dirulaguntzen eta bestelako iturrien bidez lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da jaso daitezkeen beste batzuekin; halaber, beste laguntzarik eskatu den adierazi beharko da, eta lortu dela eta jasotako zenbatekoa jakinarazi beharko da, jaso bezain laster.

Nolanahi ere, dirulaguntzen eta bestelako iturrien bidez lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan.

Baldintza hau betetzen ez bada, jasotako soberakina eta dagozkion interesak itzuli beharko dira.

17. Dirulaguntza justifikatzea

17.1. *Epea*: programatutako ekitaldiak amaitu eta 2 hilabetera amaituko da dirulaguntza justifikatzeko epea.

17.2. *Justifikatzeko modua*: uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza justifikatzeko balio juridikoa izango du agiri hauek jasotzen duen justifikazio-kontu sinplifikatuak:





- a) Aurkeztutako proiektuaren arabera dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzen duen ziurtagiria (Udalak emandako ereduaren arabera).
- b) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.
- c) Programa gauzatzeari dagozkion diru-sarrera eta gastu guztien zerrenda (jarduera egiteko jasotako diru-sarreraren edo dirulaguntzen zerrenda, zenbatekoak eta jatorriak zehaztuta, eta gastu guztien zerrenda sailkatua, hartzekoduna, zenbatekoak eta abar identifikatuta, aurrekontu araztuaren %100ekin), idazkariak sinatuta, erakunde onuradunaren presidentziaren oniritziarekin. (Udalak emango duen ereduaren arabera).
- d) Beste erakunde publiko batzuek dirulaguntzak edo laguntzak emateko hartutako erabakien kopia.
- e) Gutxienez emandako dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatzeko gastuen fakturak, dirulaguntza behar bezala erabili dela erakusteko arrazoizko froga gisa.
Justifikazio-fakturek legezko baldintzak bete beharko dituzte, eta, beraz, TicketBAI sistemari edo antzekoari lotutako pertsona fisiko eta juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek egindako fakturen kasuan, QR kodea eta TicketBAI identifikatzailea jaso beharko dituzte, onar daitezten.
Justifikatzeko zailak diren gastuen kasuan, gastu-egiaztagiriak onartuko dira (tiketak, kreditransak...), gehienez ere diruz lagundutako zenbatekoaren % 10ekoak, eta inolaz ere ez 200,00 €-tik gorakoak.
- f) Diruz lagundutako jarduera edo programa zabaltzeko egin den publizitatearen alea, Galdakaoko Udalaren lankidetzatza berariaz jasotzen duena, bi hizkuntza ofizialetan edo, bestela, euskaraz.

Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesekin batera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua 1. atalean ezarritako baldintzetan.

18. Diruz lagundutako jardueren zabalkundea

18.1. Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak berariaz aipatu beharko du Galdakaoko Udalaren babesa, dirulaguntzaren xede diren jardueren edozein publizitatean.

Era berean, egindako publizitate guztia euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da.

Zabalkunde-neurriak diruz lagundutako xedera egokitu beharko dira, bai formari bai iraupenari dagokionez, hauek izan daitezkeenak: dirulaguntza eman duen erakundearen irudi instituzionala sartzea, bai eta finantzaketa publikoari buruzko legendak ere, karteletan, oroitzapenezko plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

18.2. 18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa, eta haren ondorengo aldaketak betetz, publizitatean ezin izango da tabakoaren eta edari alkoholduen kontsumoa inola ere sustatu (kartelak, babesletza, sariak, etab.).

18.3. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena betetze aldera, jardueren publizitatean hizkera ez-sexista erabili beharko da; halaber, ezingo da azaldu pertsonen giza duintasun gutxiago edo gehiago dutenik sexuaren arabera, ezta pertsonak objektu sexual huts gisa aurkeztu ere, eta ezingo da emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu eta/edo bultzatu. Era berean, estereotipo sexistak saihestuko dira, eta sexuen, rolen eta genero-identitateen aniztasuna bultzatuko da.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1289 Data: 03/06/2026

Baliozkotze Kod.: 6ETR47R7M2ZFR5IYP76R7Z3XT
Egiaztapena: https://galdakaoko.euzko.eus/esPublico/Gestiona/plataformatik/elektronikoki_sinatutako_dokumentua | 11. orrialdea, guztiara 21
ek: BAO-2026a092-(11-2487)



**19. Betebeharrak**

Dirulaguntzaren erakunde onuradunaren betebeharrak izango dira Dirulaguntzak Arautzen dituen Ordenantzaren 9. artikuluan ezarritakoak eta, bereziki, honako hauek:

- Dirulaguntzaren zenbateko osoa aurkeztutako programa garatzeko erabiltzea.
- Helburu bererako beste instituzio edo erakunde batzuetatik jasotako dirulaguntzen edo laguntzen berri ematea.
- Egunean izatea zerga-betebeharrak eta zuzenbide publikoko gainerako betebeharrak, eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak.
- Udalak egin beharreko egiaztapen-jarduketak onartzea.
- Justifikazio-kontuan zerrendatutako faktura guztiak zaintzea, gutxienez lau urtez.
- Ekintzen publikitatea euskaraz egitea edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.
- Jarduera eta ikuskizun publikoak antolatzeari buruz indarrean dagoen araudia betetzea (erantzukizun zibileko aseguruia, joko eta ikuskizunen araudia, espazio publikoa erabiltzeko udal-baimena, etab.).
- Kultura arloarekin lankidetzan aritzea hala eskatzen zaionean, eta kulturaren arloari buruzko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, estatistika-datuak, etab.).
- Jarduera horiek antolatzeak eragindako gastu guztiak bere gain hartzea, hala nola: erantzukizun zibileko aseguruia kontratatzea, Iberdrolari argi-loturak ordaintzea, Egileen Sozietate Orokorrari ezarritako tarifak ordaintzea (honako hauek egitea: barietateen ikuskizunak, berbenak, kalejirak, musika-kontzertuak, dantzak eta abar).
- Gastu horiek erakunde antolatzaileak hartu beharko ditu bere gain, eta inoiz ez Galdakaoko Udalak modu subsidiarioan.

20. Datu pertsonalen tratamendua

«Sustapen jarduera» tratamenduaren helburua hau da: udal-eremu guztietan sustapen jarduerak eta ekintzak garatzea. Onuradunak eskubidea du bere datuak esku-ratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko. Informazio gehiago hemen:

https://gardentasuna.galdakao.eus/wp-content/uploads/2025/04/20190404_REGISTRO-ACTIVIDADES-DE-TRATAMIENTO-AYUNTAMIENTO.pdf

21. Indarraldia

Oinarri hauen indarraldia mugagabea izango da, harik eta berariaz aldatu edo balio-gabetu arte, edo ondoren onartutako beste batzuegatik ordezkatu arte.

EBAZPENA RESOLUCION
Zenbakia: 2026-1289 Data: 03/06/2026

Baliozkotze Kod.: 6ETR47R7M2FR5IYP76R7Z3XT
Egiazapena: <https://galdakao.euzkojarduerak.eus/esPublico/Gestiona-plataformatik-elektronikoki-sinatuako-dokumentua> | 12. orrialea, guztira 21
eek: BAO-2026a092-(II-2487)





SECCIÓN II
ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

Ayuntamiento de Galdakao

